

# Julia Leon: «Folklore sefardiak gaur egun du desagertzeko arrisku handien»

*Kantariak abesti sefardiz osatutako kontzertua eskainiko du gaur Donostian*

Irune Lasa / Donostia

ERREGE-ERREGINA Katolikoek 1492an penintsulatik kanpora bidali zituzten bataiatu nahi ez zuten juduak. Mediterraneo osoan zabaldu ziren orduan, Marokotik Turkiaraino, eta Sefaradetik zetozen judu haien kultura eta folklorea bertako herrien kulturarekin nahastu zen mendeen poderioz. «Mediterraneoren sintesia egin zuten», dio Julia Leonek.

Aurretik béderatzi disko argitaratu ditu Julia Leonek gaztelaniazko erromantze eta abesti sefardiekin, eta hamargarrena, *Jardín escondido*, jada kalera ateratzeko prest dago: «Udan edo irailean plazaratuko dugu». Julia Leonekin batera, disko honetan Pascal Gaigne eta Luis Camino ere aritu dira konponketak egiten. Ritxi Salabariak ere hartu du parte diskoa grabatzen. *Jardín escondido* diskoko abestiak aurkeztuko ditu Julia Leonek gaur arratsaldean Donostian, Lugaritz Kultur Etxean 20:00etan. Pascal Gaigneren gitarra eta teklatura, Luis Camino-ren perkusioak eta Ritxi Salabariaren baxua eta flauta izango ditu laguntzaile Julia Leonen ahots gozoak.

Folklore sefardiaz hitz egin zuen atzo Julia Leonek gaurko kontzertuaren aurkezpenean. «Sefardien folklorea bizirik dago. Mendeetan aldatzen joan da, Sefaradeko hizkuntza aberasten joan da tokian tokiko kulturekin». Sefardien kulturaren oinarriko bi tradizio daude: bata ekialdekoa (Turkia, Grezia, Ekialde Erdia, Balkanak...), eta bestea mendebaldekoa (Maroko eta Afrika iparraldea). «Nik ekialdekoa dut gustukoan, baina bi tradizioetako abestiekin osatu dut kontzertua», esan zuen Julia Leonek. Abeslariaren iritziz, hiru kultura (kristaua, judua eta arabiarra) biltzen ditu folklore sefardiak, «Mediterraneoko kulturen sintesia» eginenez.

Gaztelaniazko erromantzeak ikertzen urteak eman ondoren, sefardien ondarearekin topo egin

**L**ugaritz Kultur Etxean arratsaldeko 20:00etan hasiko da Julia Leonen kontzertua. Hor, Pascal Gaigne eta Luis Caminorekin prestatu berri duen 'Jardín escondido' diskoa aurkeztuko du sefardien folklorea ikerlari honek; eta Ritxi Salabariaren laguntza ere izan dute.



Julia Leon kantaria atzo Donostian egindako agerraldian.

EDURNE KOCH

zuen kantari eta ikerlari honek, eta gai horren inguruan ikertzen urteak daramatza. Madril eta Valentziako juduekin harremanak izan ditu, eta Israelen ere izana da zenbait alditan. Israelgo Ramat-Gan eta Jerusalemgo unibertsitateetan sefardien kantu zaharrak ikertzen jarduna da, eta Israelgo Isaac Leviren familiarengandik ere —sefardien folklorea aditua— jaso ditu hainbat kantu.

**Maitasunezko baladak eta kantu erlijiosoak** • Gaur Lugaritz Kultur Etxean Julia Leonek aurkeztuko dituen kantu guztiak maitasunezko baladak izango dira. «Kantu sefardi gehienak maitasunezkoak dira, nahiz eta gai er-

lijiosoak ere ugari izan. Nik ez ditut azken horiek ukitzen. Alde batetik, tradizioz emakumeek ez dituztelako kantatzen, gizonezkoek baizik; eta bestetik, eszenatokian horrelako kantuak kantatzea niri ez dagokidala uste dudalako».

Julia Leonen iritziz, «gaurko ikuspuntua gehitzen diegu guk kantu horiei, gure ekarpena egiten diegu, tradizioan oinarrituz gaur egungo sentitzeko modua jartzen diegu. Soinu nahasketak egiten saiatzen gara, soinu berriak tradizionalekin batuz, laute eta sintetizadorearekin, esaterako». Kultura sefardiaren gaur egungo egoeraz ere hitz egin zuen Julia Leonek atzo. Kantariaren ustez, «agian sefar-

dien folkloreak orain du desagertzeko arrisku handien. Mende hasieran musika mekanikoa hasi zenetik, horrek, nolabait, munduko folklore guztiari kalte egin die, eta, noski, sefardiari ere bai. Telebistak eta diskoek hartzen dute kantu bidezko transmisio modu horren lekua».

Folklore sefardia batez ere Turkian eta Marokon gorde da ondoen. Hala ere, badaude ladinok (sefardien hizkuntza, judu eta gaztelaniaren nahasketa) erabiltzen duten familiak Bulgariar, Greziar, Iranen, Iraken, Errusiar... Israelgoak, noski, leku horietatik joanak dira, eta badira sefardiak Hego Ameriketara ere. X

**'Mirandolina, ostalera ederra' emango du gaur Akusak Bilboko Kafe Antzokian**

■ *Goldoniren komedia klasikoa Xabier Mendiguren Elizegik itzuli eta moldatu du*

M. Arregi / Bilbo

OSTATU bilakatuko da gaur Bilboko Kafe Antzokia arratsaldeko 20:00etan. Antzinako ostatu giroan eszenaratuko du Akusa taldeak *Mirandolina, ostalera ederra* antzezlan. Carlo Goldoniren komediari «tratamendu klasikoa» eman diotela ziurtatu zuten taldeko partaideek atzo egindako aurkezpenean. Xabier Mendiguren Elizegi testuaren itzultzaile eta egokitzaileak ziurtatu zuenez, «komedia zoragarria» da iluntzean Kafe Antzokian ikusgai izango dena.

Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan aurkeztutako antzezlan da, Akusa eta Topaketen arteko koprodukzioa, hain zuzen. Jon Sarasti zuzendariak azpimarratu zuenez, «euskaraz ohikoa ez den moduan» testu klasikoa bere horretan hartu da.

**«Gaurkotasun handiko lan klasikoa»** • Ane Garmendia aktorea da *Mirandolina* ostalera. Eszenografiaren sinpletasuna eta mugikortasuna nabarmendu zuen. Pertsonaia nagusia XVIII. mendeko ostatu jabea da eta bertan biltzen diren gizonezkoekin dituen hartu-emanak kontatzen ditu antzezlanak. Amodio kontuekin batera eduki soziala nahasten da, klase ezberdinetako kideen arteko harremanak azaltzen baitira, zaldunaren eta *Mirandolina*ren artekoa, esaterako.

Mendigurenek ez du Goldoniren testu klasikoa hitzez hitz itzuli. «Aktore bakoitzaren parlamentua hartu eta euskaldun batek esango lukeen moduan jarri dut», azaldu zuen. Ikusleak elkarrizketak behin entzun eta ulertu behar dituela nabarmendu zuen. Obra «bere garaia ulertzeko lagungarri» dela deritzena, baina, hala ere, «gaurkotasun handikoa» dela uste du. X

## IRAGARKI MERKEAK

(943) 300222

31 x 33 mm

31 x 33 MODULO (Araba-Nafarroa)

Eguna: 1.950  
Astea (6 egun): 1.600  
2 aste (12 egun): 1.400  
Hilabetea: (24 egun): 1.000

66 x 69  
4 MODULO  
(Edizio orokorra)

Eguna: 10.400  
Astea (6 egun): 8.200  
2 aste (12 egun): 7.400  
Hilabetea (24 egun): 5.200

31 x 33 mm

31 x 33 MODULO (Edizio orokorra)

Eguna: 2.600  
Astea (6 egun): 2.050  
2 aste (12 egun): 1.850  
Hilabetea: (24 egun): 1.300

66 x 33 mm  
2 MODULO  
(Edizio orokorra)

Eguna: 5.200  
Astea (6 egun): 4.100  
2 aste (12 egun): 3.700  
Hilabetea (24 egun): 2.600

31 x 33 mm MODULO (Iparraldea)

Eguna: 80 l.  
Astea (6 egun): 75 l.  
2 aste (12 egun): 63 l.  
Hilabetea (24 egun): 50 l.

**IRAGARKI MERKEAK**

*Titiriteroak*

Antzerkia  
Haur berbera  
Zirko Tailerra

908772347  
(943)467597